



IDOIA TORREGARAI

Pretty woman

Neskontzat (askorentzat behintzat) arropa erostearen kontua izugarritzeko une delikatua izaten da. Lehenik eta behin, denda bakoitzak sudurraren puntan jartzen zaion tailajea jartzen du; hau da, batean 38a dena, bestean 40a da eta halako bestean 36a (bigarren kasuan ia bihotzekoak ematen digu eta hirugarrenean Gisele Bundchen garenaren eskizofrenia sartzen zaigu). Hori, arropa sartzeko zortea baldin badugu, zeren batzuetan ez dakizu arropa dendan edo panpinentzako akzesorioak erostekoan sartu zaren. Gauza bat da XS taila egotea (gorpuzkera hori ere badagoelako) baina gehiago ez XS, eta ez S; M eta L-a behar izaten digu, eta egia esan, toki askotan horiek topatzea desertuan pinguino batekin topo egitea bezalakoa da.

Beste kontu bat ez dudana oso ondo ulertzen arropa dendetatik probageletako argiztapena da. Stephen Kingek idatzitako pelikula baterako prestatuta daude dirudi. Suposatzen da dendari saltzea interesatzen zaiola eta ondorioz, argalago egiten duten ispiluak jartzen dituztela, ezta? Ba jakin dezatela inbertsio hau popatik joaten dela bertan dagoen argiengatik. Normalean sukaldean izaten ditugun fluorestente indartsuen antzekoak jartzen dituzte, bi ondorio beldurgarriekin: 1, Casper mamua baino kolore txarragoarekin ikusten zara, eta 2. Celulitisaren kontrako borroka guztiz galdua duzula konturatzen zara.

Noski, egoera honen guztiaren ondoren oraindik zerbait erosteko gogoia geratzen bazaizu, ez da optimista zarela, ez, HEROIA ZARA!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idolia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak, bere sorrerako chungarren urteurrenean eskerrik eman nahi dizkie urte berezi honetan burutzen ari garen ekintza eta ospakizun ugarietan bere laguntza luzatzen ari zaizkigun herriko udala, elkarte, herritar eta bazkideei. Gaurkoan, hala ere, igaro berria den Sagardo Egunaren antolatzaileei bihotz-bihotzez gurekin gogoratu izana eskertu nahi diegu.

Edalearena baino lehenago baserritarrenak dira sagarra, sagardogintza eta sagardoa bera. Honen adierazle, hor

ditugu aurtengo urtean zehar sagastia sortu eta zaintzeko ikastaroak eta Sagardo Egunean bertan sagardoa egiteko tresneria eta abar ezagutzeko jarri genuen erakusleihoa.

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak Elkarteari hogeitazazpi urtetan egin duen lan ikaragarriari esker herriaren ikur bilakatua da Sagardo Eguna. Eta igaro berria den azkenekoan gure hungarren urtebetetzeaz jabetuta XXVII Sagardo Egunari lehen sagardo botila irekiz hasiera emateko izendatu zuten gure kooperatiba. Ohore handi bat izan

da. Beste ehun urtetan jarraitzeko kementa ematen duten ohore horietako bat. Ea ba ehun eta hogeitazazpigarren Sagardo Eguna berrehun urte betetzen dituen kooperatibak irekitzen duen. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak Elkarteari mila eskerrik asko. Eta usurbildar guztioi ekainak 8, igandea, kooperatiba sortu genuela ehun urte betetzen diren egun bera behar bezala ospatzeko antolatu ditugun ekintzetan ikusiko garelakoan, agur t'erdi.

Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: ekainak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 2.

Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
© 663 08 76 71 • USURBIL

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 - 48100 100
Llehen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA